



## I. ERANSKINA. 2024 Udaldiko Toldo eskaera

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_ PK: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

emaila: \_\_\_\_\_

**Zein gunetan nahi duzu toldoa?. Aukeratu bakarra. Ikusi planoa.**

- ☐ 1. gunea
- ☐ 2. gunea
- ☐ 3. gunea
- ☐ 4. gunea
- ☐ 5. gunea (bigarren lerroa)
- ☐ Egokitutakoentzat

### **Toldo zerbitzuaren arauak:**

- Toldo denboraldiak ekainaren 22tik irailaren 15era arte iraungo du.
- Toldoaren alokairuak, aukeratutako abonua edozein dela ere, toldo eta egurrezko bi aulki alokatzea ekarriko du.
- Behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko, 20 €-ko fidantza ordaindu beharko da toldo bakoitzeko. Fidantza hori alokairuarekin batera ordaindu beharko da, eta materiala egoera onean entregatzen denean itzuliko da. Hautsitako edo entregatu gabeko aulki bakoitzeko, 5€ko zigorra ordainduko da; baldin eta toldoa bada erabilera desegokiagatik kalte larriak izan dituen, fidantza ez da itzuliko.
- Toldoak hondartza-ordutegiaren hasieran irekiko dira, 30 minutuko tartearekin, betiere eguna eguzkitsua bada. Hala ez bada, posible izango da beranduago irekitzea edo ez irekitzea. Euria egiten badu, toldoak ez dira irekiko.
- Toldoak ireki, itxi eta manipulatu, udal langileek bakarrik egin ahal izango dute.
- Toldoak 18:45ean itxiko dira ekain eta irailean; uztail eta abuztuan berriz 19:30ean. Hala ere, lehenago itxi ahal izango dira, esleipenduna ez bada erabiltzen ari.
- Udalak ez du bere gain hartuko toldoen erabileran gerta daitezkeen erabiltzaile aldaketen erantzukizuna. Toldo bakoitzaren arduraduna zozketaren esleipenduna izango da.
- Eguraldi txarra eta/edo galerna dagoenean, udal-langileek toldoak itxi ahal izango dituzte ixteko ordua baino lehen, aurretik, megafonia bidez behar bezala abisatuta; baita erabiltzaileak erabiltzen ari badira ere, hirugarrenei kalterik ez egiteko.
- Toldoan aulkiak bakarrik lotuko dira eta gehienez 5 aulki izango dira, egurrezko 2ak barne. Sekula ez poltsak, flotagailuak, jostailuak edo horrelakoak.



- Erabat galarazita dago toldo gainean ezer ipintzea edo arropa zintzilikatzea; baita toldoa lotzeko soketan ere (ez da zintzilikario modura erabiliko).

- ☐ Goian azaldutako araudia irakurri dut eta onartzen dut
- ☐ Nire ardurapean, adierazitako datuak egiazkoak direla aitortzen dut.

Goikoak kontuan hartuta, Debako hondartzako toldo bat erabiltzeko eskaera egiten dut.

Deban, 2024ko \_\_\_\_\_ren, \_\_\_\_\_(e)an

Sinadura